

Nortasuna

Mahmud Darwish- Itzulpena: Koldo Izagirre

"Jartzazu!

Arabiarra naiz.

Agiri zenbakia: berrogeita hamar mila

Haurrik: zortzi

Udazkenean... bederatzigarrena helduko da.

Eta haserretu egiten zara!

Jartzazu!

Arabiarra naiz

Harrobian egiten dut lan nire nekalagunekin

eta zortzi haur ditut

Haien opila

haien jantziak, haien eskola-kaiera

harkaitzetatik ditut sortzen...

O, ez naiz zure atean eskale ageriko

ez naiz ñimiñoa eginen zure jauregiko atarian.

Eta haserretu egiten zara!

Jartzazu!

Arabiarra naiz

deiturarik gabea —neure izena nauzu ni

Azkenbako patxadakoa naiz denak ere

koleraren ilintietan bizi diren herri batean.

Nire sustraiak...

denbora sortu aitzin hartu zuten lur

iraupenaren lehertzea aitzin

zipresa eta olibondoa baino lehen

...belarra hazi baino lehen.

Aita... lugin familiakoa

zer ikusirik ez notable jaunekin

Aitona nekazaria nuen

ez baliorik ez arbasorik duen izakia.

Nire etxea, guarda txabola bat

enborrez eta kanaberaz.

Horra nor naizen. Laketzen zaitu?

Deiturarik gabea, neure izena besterik ez nauzu.

Jartzazu!

Arabiarra naiz.

Ileak... ikatz kolore.

Begiak... kafe kolore.

Ezaugarri bereziak:

buruan kefiya lokarria ongi estuturik.

Eta ahurra harria bezain gogorra

...larrutu egiten du tinkatzen duen eskua.

Maiteen dudan hazkurria

olioa eta menda.

Helbidea:

herrixka isolatu batekoa naiz...

Han karrikek ez dute izenik

eta gizon guztiek... karrikan eta alorretan

komunismoa dute maite.

Jartzazu!

Arabiarra naiz .

Eta haserretu egiten zara!

Jartzazu

arabiarra naizela

neure aitaoen mahastiak suntsitu dituzula

eta neuk lantzen nuen lurra.

Dena kendu diguzu

neu eta neure hurrak guztiok bat

kendu gaituzu.

Neure biloben irauteko

hemen ikusten dituzun harri puskak.

Baina zure gobernuak bahitu agin behar omen ditu
hauek ere!

BERAZ

Jartzazu

lehen orrialdeko buruan

ez ditudala gizakiak gorroto

ez naizela inori jazartzen baina

gose baldin banaiz

neure ebaslearen haragia dudala jaten!

Erne! Erne! Erne!

Neure haserreari!

Olibondoa

Mahmud Darwish. Itzulpena: Koldo Izagirre

Olibondoak oroit badu

nork landatu zuen

malko du bihurtuko

olioa.

O, gure arbasoen jakinduria!

Zuentzat gure gorputza

izanen da babesleku!

Aterako ditugu ziriak

betileetatik

eta tristura segatuko dugu

eta lekutu egingen dugu gure herritik.

Olibondoak berdetasuna gordeko du

betirako

eta lurrera itzuliko da

arma bat bezala.

«Para escribir una poesía
que no sea política
debo escuchar a los pájaros
Pero para escuchar a los pájaros
hace falta que cese el bombardeo».
Marwan Makhoul, poeta palestino.

«Mi madre nació bajo un olivo
en la tierra que dicen que ya no es mía.
Pero cruzaré sus barreras,
sus locos muros del apartheid,
y volveré a mi hogar».
Rafeef Ziadah, poetisa palestina.

En el tronco de un olivo

Tawfiq Zayyad (Palestina, 1922-1994)

«Porque no tejo la lana,
porque a diario soy objeto
de órdenes de detención
y mi casa blanco de las visitas de la policía
para registrar y «limpiar»
porque no puedo comprar una hoja de papel,
grabaré todos mis secretos
en un olivo
en el patio de mi casa.
Grabaré mi historia
y los capítulos de mi tragedia
y mis quejas
en el naranjal y en las tumbas de mis muertos.
Grabaré toda la hiel que probé
y que borrará una décima parte de la miel que gustaremos.
Grabaré el número del recibo
de nuestra tierra expoliada
y el lugar de mi aldea y sus linderos
y las casas dinamitadas
y mis árboles derribados
y cada florecilla del campo aplastada
y los nombres de los que fueron maestros
en consumir mis nervios y mi aliento,
y el nombre de las cárceles
y de cada clase de esposas
que maniataron mis manos
y el historial de mis guardianes
y cada insulto que me arrojaron a la cara.
Grabaré «Kafr Qasim, no te olvidó».
Grabaré «Deir Yasin, tu recuerdo ha arraigado en mí».
Grabaré: «Hemos llegado a la cumbre del drama,
nuestra tragedia nos ha roído
pero
hemos llegado a la cumbre».
Grabaré todo lo que me cuenta el sol
y lo que me susurra la luna
y lo que me cuenta una alondra
junto al pozo que los amantes abandonaron.
Para recordar
seguiré sin descanso grabando
todos los capítulos de mi tragedia

y todas las etapas del desastre
desde el principio hasta el fin.
Allá, en un olivo
en el patio de mi casa».

Tawfiq Zayyad en Ammán en septiembre y otros poemas (Hiperión, 1979)